

## **MERKATU SEGMENTAZIOA**

**Gure negozioaren kokalekuak finkatzen du gure bezero taldearen ezaugarri nagusiena. Leioako kanpusean kokatuko dugunez salmenta puntua, bertako erabiltzaileak izango dira gure bezero nagusienak. Unibertsitateko irakasleak, ikasleak baita ondoan dauden bigarren hezkuntzako bi ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak identifikatu ditugu bezero nagusi bezala. Beraien ikastetxeak zein lantokien kokapenak gure negoziotik gertu daudelako.**

**Adinari dagokionez, jende gaztea izango da, salduko dugun fast foodaren bezero segmentu potentziala gazteria delako. Egia da gure zerbitzua ez dela egunero bazkatzeko egina, kanpusean badago ostalaritza eskolako jantokia, eguneko menuarekin prezio oso lehiakorrean. Gure bezeroak, beste zerbait bilatzen du: alde batetik **AZKARTASUNA** izan daiteke edota **FAST FOOD** janari mota kontsumitzearen nahia, gainera, inguruko hanburgesa onenak salduko ditugunez, kalitatezko hanburgesa prezio ekonomiko batean disfutatu nahi dituzten pertsonak etorriko dira.**

**Gure produktuak kontsumitzera etorriko diren pertsonen artean, batzuk elikagai batzuei alergikoak izan daitezke. Segmentu honi astetzeko gure menu guztietan osagaiak argi azalduta egongo dira eta alergenorenak nagusienak adierazita.**

**Bezero potentzialen artean aurkituko dira ere dieta bereziak kontsumitzen dituztenak (beganoak, begetarianoak...), hauentzako hanburgesa begano baten eskaintza izango dugu.**